

Osotasuna eta taldekeria

Euskaldunon Egunkaria, 1993-08-29: 2.

Euskal Herriaren gaitzik okerrenetakoa taldekeria da. Ezagunak dira Iparraldea eta Hegoaldea bakoitza beretik dabilela aspaldi (Nafarroa erdibitua), eta hiru eskualdeak besten mende. Orain Europa birmoldatzeko une preziatu honetan bertan erakusten ari garen liberaltasun eza kasu, beste gauzen artean, Julio Iglesias Jaunaren bahiketa. Ez dut uste gure herrian gaitzakeria honek euskaldun asko poztu duenik. Bahitua bera eta bere senideak dira lehen biktimak, baina askatasuna eta pakea partitu ezinak direnez, gutako bakoitzarena ere bada! Politikako estrategiak ere nahasten dira, espainolkeria bereziki. Egoera honetan barrutik esan nahi dudana hau da: lehenengo Askatasunaren izenean, ezagutzen ez dudana Julio Iglesias Jaunaren libertatea eskatzen dudala, gizonari preziorik ez duen askatasuna zor zaiolako, herri eta mintzaira bakoitzari berea zor zaion bezala. Bigarren, indarkeriaz, biolentziaz gehiegi jasan duela Euskal Herriak, eta Iglesias Jaunari ezarri zaiona desegitea eskatzeko eskubidea dudana bezala eskatu nahi diodala Estatu espainolari eta bere indar armatuei, egin dituzten kalteak desegin ezinak direnez, gaitzakeriarik egin ez zuen nire aitari ezarri zioten 40 urteko desterruan zoratzeko adina pasa zuenaren ordainez ezagutu diezaietela gaur ETako preso daudenen guraso eta anaia-arrebei bizitza eroso egiteko duten eskubidea; zeren eta gaitzakeriaz sakabanatu dituzte, ez justiziaz. Hirugarren, honen izenean ez ditzatela preso hartzen dituzten mutilak legez kontra jipoitu, hemen denok gara eta amaren seme.